

# PLAZA ECOFRIENDLY

## *9.- Kostuen egitura*

Gure kostu egitura kontuan hartuta, **kalitatean oinarritutako negozio-eredua** sortuko genuke:

- Enpresa askok eta askok, prezioaren murrizketa erabiltzen dute bezeroa produktua erostera erakartzeko, baina, gure ustez, diruaren murrizketak kalitatearen murrizketa dakar. Gure proiektuan kalitateari garrantzi handiagoa eman diogu, eta kasu honetan, hura izango zen bezeroak erakartzeko ezaugarririk garrantzitsuena: elikagaien kalitatea. Gure iritziz, elikagaien kalitatea produktuak inguruko baserrietan landatzearen eta, ondoren, saltzearen ondorio da.

